

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Martxoaren 28an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin, J. M.^a Satrustegi eta A. Zavalala euskaltzain jaunak; L. Akesolo, P. Altuna, J. L. Alvarez "Txillardegi", J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fz. Setien, X. Garmendia, J. Intxausti, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, F. Mendizabal, K. Rotaetxe, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria onartu ondoren, Bazko Astean Hondarribian egitekoa zen bilera irakasle zenbaiten eskariz, egunez aldatu egin da. Apirilaren 17an, "Ramery" etxean izango da, biharamunean Euskaltzaindiko batzarra bertan egiteko moduan.

I. GOIZEKO BILKUREN BERRI

a) *EUSKERA* aldizkariaren batzordeak datozen zenbakien berri eman du. Lehenbiziko alea, orain arte argitaratu diren guzien "Index" bat izango da, 1980 (I) bezala. Aurtengo bigarrenean, 1980 (2), Arrasateko biltzarreko lanak sartuko dira. Elkarrizketak sartu ala ez, zalantzan gelditu da. Azkenekotz, aurtengo agiri, txosten eta bestelakoak 1981 (1) zenbakian joango dira.

b) *Euskararen Lekukoak*: Etxepare-ren alea prest dagoelarik, argitalpenaren zenbait xehetasun ikusi dira. Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen aleen azala denetan tankera berdinekoa izan behar duela esan da. Argitalpenaren eskubideak, lehenbiziko aldian behintzat, argitara ematen duten alderdi bienak izango dira. Etcheberri Ziburukoarena eta Lapeire-rena aurrera omen doaz.

c) *Euskalarien Nazionarteko Jardunak*: zenbait hizkuntzalariren erantzuna jaso da. Hauekin bakarrik ere bilera hauen garrantzia segurtaturik dago. Bertan, harremanetarako beharren erantzunkizuna Euskaltzaindiak berak izango du. Zenbait euskaltzain eta urgazleren izenak aipatu dira. Jardunaldi hauek Gernikan irekiko dira eta Leioako Unibertsitatean jarraituko dute.

d) *Hiztegi berezien* lanak ere badoaz azurrera. UZEIkoekin egiridako bileran, "Zirkulazio-ezaugarriak" eta "Euskara administrazioan" izeneko txostenak aurkeztu dira.

II. EGUNEKO GAIAK

Lojendio euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko, izen-aurkezpena egiteko epea bukatu dela esan du euskaltzainburuak. Behar bezala arrazoiturik proposamen bi jaso dira, Txillardegi eta Patxi Altunaren alde. Datorren hilabeteko batzarrean hautatuko da Arautegiaren arabera.

III. TXOSTENAK

Karmele Rotaetxe "Euskal prosodiaz" mintzatu da. Azentua, doinua, etab. adierazi ditu, gero harremanetan jarraipen luzea izan duen ikerlanean. Urgazle izendatu zenetik Euskaltzaindian agertzen duen lehenbiziko txostena du Karmelek, eta horregatik ongietorria eman dio Villasante jaunak hasieran.

X. Mendiguren, Itzulpen eta itzultzaileei buruz mintzatu da gero. 80 bat orrialdeko lan mardula aurkeztu du, geroko itzultzaileen eskola oinarritzeko zer bide hartu beharko litzatekeen adieraziz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.^a SATRUSTEGI